

Gazteen memoria astintzeko bidean

Francok behartuta lan egin zutenen inguruko erakusketa jarri dute NUPen

EDURNE ELIZONDO

Iruñea

Gero eta gehiago. Frankismoaren errepresioaren inguruko ikerketak ugaritu egin dira Nafarroan azken urteetan, Memoriaren Bidetik elkarteak kideek egin duten lanari esker, besteak beste. Beste urrats bat egin dute bide horretan taldeko arduradunek, eta Geronimo Ustariz Institutuarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (NUP) batera, Pirinioetan behartuta lanean aritu zirenen inguruko erakusketa zabaldu berri dute NUPeko Sario eraikinean, Iruñean. Haren osagarri, hainbat lan biltzen dituen liburua plazaratu dute, euskaraz eta gaztelaniaz.

Erronkariko ibarrean hasi eta Gipuzkoaraino, 15.000 lagun aritu ziren lanean 1936ko gerra amaitu ondoren Francok behartuta. Errepideak eta bestelako azpiegiturak eraikitzen aritu ziren. Isilean gorde da errealtate hori urte luzez, eta errealtate hori azalera-tzea da erakusketaren helburua. Zentzu berezia hartzen du ekimenak unibertsitatean jende gaztearen artean. «Benetan igaro den denbora baino askoz ere gehiago pasatu dela iruditzen zaie askori, gai horretaz mintzatzen zaienean. Garrantzitsua da gazteek jakitea, gogoratzea», nabarmendu du NUPeko errektoreorde Camino Osleak.

Geronimo Ustariz Institutuko kide Jose Miguel Gastonek hezkuntzaren arloan memoria berreskuratzeko ahaleginek duten garrantzia berretsi du. «Tafallan irakasle naiz ni. Gai hau mahai gainean jartzen duzunean, sekulakoa da ikasleen erantzuna. Ordura arte ezezaguna zen errealtatea ikusten dute begien aurrean».

Ildo horretan, Gogoan ekimenaren ekarpena azpimarratu du Gastonek. Hainbat irakaslek eta ikasleek egin dute bat ekimen horren eskutik, memoria zuzenean ahazko iturrietatik jaso ahal izateko.

«Aitona-amonei galdetu besterik ez dute egin behar ikasleek. Hasieran kostatzen zaie hastea, baina hitz egiten dute. Eta gazteek dena jasotzen dute».

Horregatik, gazteek dena jasotzen dutelako, erakusketa bera eta harekin batera argitaratu duten liburua-katalogoa ikastetxeetan erabiltzeko gonbita egin du Gastonek.

BILDUMA. Erakusketaz eta liburua haratago doa Memoriaren Bidetik elkarteak eta Geronimo Ustariz Institutuak NUPekin elkarlanean martxan jarri duten proiektua. Espainiako Gobernuaren diru laguntza jaso dute ekimen horretarako taldeok, *Esklaboak mugan* izeneko proiektuari esker.

«Taldea lana dago honen guztia- ren atzean», gogoratu du Memoriaren Bidetik taldeko kide eta historialari Fernando Mendiola. Erakusketaren osagarri plazaratu duten liburua nabarmendu du berak, eta «gisako lehen bildumatzat» jo du lana. «Hainbat ikerketa monografiko, Pirinioetan lanean aritu zirenen inguruko datuak, eta gaia testuinguru historiko zabalago batean kokatzen duten lanak jaso ditugu».

Erakusketa urriaren 18a bitarte egonen da NUPen. Gero Otsagubian jarriko dute, urriaren 22tik azaroaren 4a bitarte. Nafarroako Unibertsitate Publikora itzuliko da hil horren 19an, eta, handik, Castejonera eramanez dute. Hori, oraingoz, beste hainbat toki eta data zehazten ari baitira ekimenaren bultzatzaileak.

Materiala bada erakusteko. Agiriak, mapak, izenak. Webgunea, halaber, martxan dago, www.esclavitudabajoelfranquismo.org helbidean. Eguzki Bideoak taldeko kideek, gainera, dokumentala egin dute behartuta lan egin behar izan zuten presoenguruan.

Frankismoaren inguruko ikerketen garrantzia nabarmendu du Mendiola, eta jasotako emaitzak ezagutzera emateko beharra. Jen-deak jakin dezan. Hori da erakusketaren helburua, eta hori da gainontzeko liburua, agiri eta ekimenen helburua. Gertatu zena mahai gainean jartzea.



Hamasei panel jarri dituzte NUPeko Sarioen. JACOB MANTEROLA / ARGAKZI PRESS



Urriaren 18a bitarte egonen da erakusketa NUPen. JACOB MANTEROLA / ARGAKZI PRESS